

# IRAKASLE GIDA

LIDERGO EKINTZAILEA  
ETA BERRIKUNTZA GRADUA

**2024-2025**  
(2014 IKASKETA PLANA)

**MTA**  
MONDRAGON  
TEAM  
ACADEMY

# ÍNDICE

NORTZUK GARA	
MONDRAGON UNIBERTSITATEA (MU)	3
MONDRAGON TEAM ACADEMY (MTA)	4
GRADUAREN AURKEZPENA (LEINN)	7
IKASKETA PLANA	10
PROFIL KONPETENTZIALA	12
IKASKETA EREDUA: TRAINERA MODEL	14
ROCKET MODEL	16
LEARNING JOURNEYS	20
OINARRIZKO IKASGAIK	22
ESPEZIALIZAZIOA	24
START UP PROCESS	25
GRADU AMAIERAKO ROIEKTUA	26
EBALUAKETA SISTEMA	27
ARAUTEGI AKADEMIKOA ETA ADMINISTRATIBOIA	28
EGUTEGI AKADEMIKOA	29



## MONDRAGON UNIBERTSITATEA (MU)

MONDRAGON UNIBERTSITATEAK, bere garai eta gizartearekin konpromiso sendoa du, mundu eta eotrkizunari beti begiratur. Unibertsitate gazte eta dinamikoa gara, eta gure izaera kooperatiboak ere asko definitzen gaitu. Gure sorreratik gainera, enpresa munduarekin harreman estu-estua izan dugu, ezaguna denez.

Oñatin, Irunen, Bilbon, Madrilen, Malagan, Bartzelonan, Valentzian, Queretaron, Pueblan, Seoulen, Seattlen, Punen eta Shanghai-ko laborategietatik Enpresa Kudeaketan, Ekintzailertzan eta Berrikuntzan prestakuntza hau aurkezten dizugu. Eskaintza hau Europako espaziora egokitua eta eguneratua dago.

# MONDRAGON TEAM ACADEMY (MTA)


MTA-ren helburua, talde ekintzailearen inguruko nazioarteko elkarte irekia sortzea da. Honek, era askotariko belaunaldi, kultura eta diziplinak hartzen ditu kontuan. MTA-k, talde ekintzaileta, bizi eta kanporatzeaz gain, Mondragon-eko Esperientzia Kooperatiboa erakunde desberdinetara zabaldu nahi du, inpaktu sozial positiboa lortuz. Horretarako, berrikuntza disruptiboko programak garatzen ditugu:

1. Aldaketa agente gazteak eta "team-changemakers"-ak sortuz.
2. Mundu osoko erakundeetan, ekimen ekintzaile eta barne ekintzaileak bermatuz.
3. Berrikuntza Sozialeko Ekosistemak, MTA world labs, talde ekintzailearen bidez sortuz.

**MTA anniversary  
LEINN**



# MTA WORLD



 LABORATEGIAK

 LEARNING JOURNEYS

 LABORATEGI POTENTZIALAK

# MISIOA, BISIOA ETA BALOREAK

We are devoted to radical education accessible to everyone reaching by 1st of May 2020 20.000 transformed people creating successful MTA team companies.

5. Leave it better than you found it

6. We respect, we are honest and transparent

3. Teamlearning by creating and experimenting

4. We aim for excellence with discipline and fun

2. We encourage diversity

1. We love what we do serving others 24/7

We are passionate teampreneurs blooming ourselves to create glocally radical positive impact together



## GRADUAREN AURKEZPENA (LEINN)

Lidergo, Ekintzailea eta Berrikuntza Gradua, lana taldeka egitea, kultura zein metodologia berriak esperimentatzea eta atzerrira joatea atsegin duten pertsonentzat da.

Gaitasun hauek hurrengo bideak jarraiturik lortzen dira: praktikan oinarritutako metodoa, esperientzian oinarritutako ikasketa (learning by doing), eta auto kudeatutako taldeen lana. Hau guztia lantzeko, gure ikasleek lehenengo egunetik sortuko dute enpresa bat, benetako bezeroentzat lan eginez eta benetako proiektuak sortuz.

Era berean, azken urtean, start up prozesua garatzen da. Bertan, negozio plan bat burutu eta gradu amaierako proiektua egiten da bere modalitate ezberdinetan: start up berri baten sorrera edo existitzen den enpresa batean, barne ekintzailatza eta berrikuntza eremuetan.



**Heziketa-eredu finlandiarra  
“Eredu finlandiarra esperimentatuko  
duzu”**

Gure ikasketa metodoak, Team academy ekintzailletza unitatean dauka jatorria. Team academy, talde ekintzailletzaren irakaskuntza komunitatea, Jyvaskilako (Finlandia) Zientzia Aplikatuen Unibertsitatean kokatuta dago. Metodo hau, 20 urte baino gehiagotan erabili izan da Finlandian eta 2006an, heziketa-ministerio finlandiarraren errekonozimendu berezia lortu du.

Gure programan, heziketa-eredu finlandiarra, hainbat kontzeptu eta tresnetan ikus daiteke, adibidez, autokudeaketan eta sormenean, elkarrizketarako gunetan, ekiten ikasten duten taldeetan, komunitate sentimenduan, erantzukizun partekatuan edo lan espazio fisikoetan. Eredu hau, batetik, askatasunean oinarritzen da eta bestetik erantzukizunaren onarpenean.




**Nazioarteko esperientzia  
“Bidaiak egingo dituzu hiritar globala  
izateko”**

Enpresek, ikuspegi globala daukaten profesionalak behar dituzte; enpresa mundua, gero eta gehiago oinarritzen baita, herrialdeen arteko elkar eraginean eta nazioarteko merkatuan izaten den jokaeran. Testuinguru honetan, gure Graduan, hiritar globalak prestatzen ditugu. Gure programaren bitartez, banakako trukeak egongo dira eta zure taldearekin atzerrira joango zara.

Ikasle guztiak Europako herrialde bat ezagutuko dute lehen urtean talde esperientzia desberdinak ezagutzeko. “Learning journey” edo ikasketa bidaiak ere esperimentatuko dituzue, hurrengo lekuetara bidaiatuz: Estatu Batuetak eta gutxienez suspertzen ari den herrialde batera joango zarete (adibidez, Txina, India). Enpresa berritzaileak bisitatuko dituzue eta esperientzia zein ekintzaile arrakastatsuek ezagutuko dituzue.





### **Taldean ikasi (Team learning) “Taldean ikasiko duzu”**

Gure lan egiteko tresna nagusia taldea da: zuen taldea. Ikasle bakoitzak, parte hartu eta ikasi egiten du hainbat taldetan lan eginez: bere enpresa edo “Team company”, proiektu partekatuak, ikasketa unitateak, kudeaketa taldeak edo foruak. Beste hitz batzuekin, elkarri eragiten eta beste pertsona batzuekin lana egiten ikasten dugu. Lana taldeka egiterakoan, ekintzailtza kompetentziak praktikan jartzen ikasten ditugu; besteak beste, negoziazioa, lidergoa, denboraren kudeaketa, konpromisuen onarpena eta komunikazioa.

Talde guztiek, entrenatzaile edo “coach” bat daukate. Coach-ak, taldean gertatzen denaren ikuspegi globala dauka eta kasu bakoitzean, taldearen ikasketa nola sustatu eta bermatu jakingo du.



### **Benetako enpresak (Team company) “Zure enpresa propioa taldean sortuko duzu”**

Garapen pertsonalaren eta ikasketaren gakoa, mundu errealekin izaten den elkar eragite iraunkorrean dago: benetako enpresa bat sortu eta benetako bezeroentzat lan egin egiazko proiektuetan. Enpresa munduari aurre egiten diogunean, irauteko eta arrakasta izateko modua aurkitu behar dugu. Ikasleak protagonistak dira eta bere enpresa propioak sortzen dituzte taldean, benetako bezeroekin daukate harremanak, eta hauentzat, eskaintzak sortu eta zerbitzuak ematen dituzte.

Zeregin hauetan aholkatzen dieten Coachek eta irakasle adituek, prozesu hau bermatu eta sustatu egiten dute, baina ez dute bideratzen. Gure ikasleei benetako aukera eskaintzen diegu, ekintzaile eta enpresari bezala, enpresa ingurunearekin egoten den harremanari esker, ikasketarako ingurune seguru eta ezin hobe batean.



### **Grina eta gogoa, zuek zarete zuen ikasketaren protagonista. “Ikastea, erronka zirrargarria izan daitekeela ikusiko duzu.”**

Zein da zuen grina? Zer egin nahi duzue benetan zuen bizitzan? Zer behar duzue zuen amets pertsonala egia bihur dadin? Pasioa eta taldean ekiteko nahia da beti, gure abiapuntua.

Gure misioa, taldean ikasten duten ikasleek garatzen dituzten ekintzak, benetako grinarekin esperimenta dezaten da.

# IKASKETA PLANA

R.D.1393/2007-a ezartzen duen bezala tituluaren kredituetako kopurua 240tan jartzen da, kreditu-kopurua 60tan 4 iraupen-urteetako bakoitzerako ezarri.

Kreditu bakoitzeko ordu kopurua 25ekoa da.

Denbora osoko ikaslearen arduraldia 38 astetan ezartzen da ikasturte bakoitzean.

## **Ikasketa plana**



MODULUA	%	1. KURTSOA	2. KURTSOA	3. KURTSOA	4. KURTSOA
Enpresaren kudeaketaren eta sorreraren oinarriak	52 ETCS (21%)	26	26	0	0
Lidergoa eta ezagutzaren kudeaketa: Banakako ikasketaren garapena	27 ETCS (11,2%)	9	6	12	0
Ekintzailea izan eta bezero ikuspegia: Ikasketaren garapena enpresan	27 ETCS (11,2%)	9	6	12	0
Berrikuntza sarean, balorearen sorreraren eragile bezala: Ikasketa garapena komunitatean	24 ETCS (10%)	3	9	12	0
Hiritar globalak	36 ETCS (15%)	13	9	10	4
Enpresen sorreraren prozesua eta espezializazioa	48 ETCS (20%)	0	4	14	30
Gradu amaierako proiektua	26 ETCS (11%)	0	0	0	26
GUZTIRA		60	60	60	60

# PROFIL KONPETENTZIALA

Titulazio honetako graduatuek lortzen dituzten konpetentziak, hiru kategoriatan elkartzen dira. Kategoria bakoitzaren barnean 7 konpetentzia daude, konpetentzia hauek, ikasteko, lideratzeko eta ekintzaile izateko beharrei erantzuten diete.

1. Taldean ikasi
2. Taldean lideratu
3. Taldean ekin

## 21 Konpetentzia

### Taldean ikasi



**01** Informazio teknologikoak eta trebetasun informatikoak




**02** Ikasketa teknikak taldean



**03** Ikasketa metodo pertsonalak eta jarrerak (buru-ereduak)



**04** Sormena



**05** Nazioarteko ikuspegia



**06** Komunikazio trebetasunak




**07** Auto-orientazioa


## Taldean lideratu



**08** Auto-kudeaketarako trebetasunak




**09** Proiektuen kudeaketa



**10** Taldeak lideratzeko gaitasuna



**11** Planifikazio teknikak



**12** Coaching trebetasunak



**13** Trebetasun estrategikoak



**14** Erabakiak hartzea eta ausardia

## Taldean ekin



**15** Kontsumitzaileari zerbitzua eta ne-goiazio zein salmentarako teknikak



**16** Finantza elementuen ulermena



**17** Marketin-a



**18** Berrikuntza



**19** Ekintzaile baten modelizazio eta trebetasun teorikoak



**20** Sare-sorrera edo networking



**21** Oztopoak gainditzeko adorea eta borondatea

## IKASKETA EREDUA: TRAINERA MODEL

LEINN-eko ikasketa plana 7 modulutan dago egituratuta. Hauek, hainbat materia barne duten unitate akademiko bezala ulertzen dira:

1. Lidergoa eta ezagutzaren kudeaketa: banakako ikasketaren garapena.
2. Ekin eta bezero ikuspuntua: ikasketaren garapena enpresan.
3. Berrikuntza sarean, balioa sortzeko eragile bezala: ikasketaren garapena komunitatean.
4. Hiritar globalak.
5. Oinarrizko irakasgaiak: enpresak sortzeko eta kudeatzeko oinarriak
6. Enpresak sortzeko prozesua eta espezializazioa.
7. Gradu amaierako proiektua.


Modulu guzti hauek, Trainera model deitutakoaren bidez ikusten ditugu. Leinneo eredu hau, Rocket model-arekin (goian aipatutako lehenengo hiru moduluak jasotzen dituen eredu Finlandiarraren oinarria), eta Mondragon Unibertsitateko gradua sortzeko gehitu ziren gainontzeko elementuekin, osatuta dago.



**FINAL PROJECT  
START-UP PROCESS**

**SPECIALIZATION**

- specialization program
- leadership workshop



**BASIC  
SUBJECTS**

economy & business

economy & financial manag.

technical management

**GLOBAL  
CITIZENS**

- learning journeys
- foreign languages

# ROCKET MODEL

Team Academy Finlandia-k garatutako Rocket Model-a da learning-a coop-a team guztiak era kolektiboan gainditu behar duen ibilbide ekintzailea garatzen duen modeloa; hirui motor dauzka 12 prozesurekin guztira:

**Modulo 1 / Motor 1:** Lidergoa eta ezagutzaren kudeaketa: banakako Ikasketaren garapena


**2 Moduloa / 2 Motorra:** Ekintzaitetasuna: Ikasketaren garapena enpresan

**3 Moduloa / 3 Motorra:** Berrikuntza sarean balioa sortzeko eragile bezala: Ikasketaren garapena komunitatean

Modulu hauek garatzen dira tituluko 3 lehen urteetan zehar.

Rocket Model-aren ebaluazioa 2 aldiz egingo zaie joango diren elkarrizketa-saioan zeharreko taldeari eta bere teamcoach-ari. Rocket Model-aren arabera adierazle anizkunak baita ere "Scorecard MTA" (Enpresaren Fakturazioa, bezeroei bisiten, irakurritako liburu-etako, ordu-etako eta proiektu-garapeneko puntuak) neurtzen duten erremintan jasotako oinarritzko adierazle batzuk daude.

**Rocket Model**  
**Book of books**






# 1 MODULUA: LIDERGOA ETA EZAGUTZAREN KUDEAKETA: BANAKAKO IKASKETAREN GARAPENA

Modulu honek, ezagutzaren sorrera prozesuarekin erlazionatuta dauden ezagutzak eta konpetentziak garatzen laguntzen du. Bertan, ezagutza intentsiboko enpresen kudeaketan, lidergoaren garrantzia ikusarazten da ere. Modulu honetan, graduan oinarritukoak diren hainbat tresnen barneraketa eta kudeaketa lantzen da, hala nola, ikasketa kontratua (learning contract) edo teampreneur-en liburuen irakurketa eta asimilazioa banakako eran. Titulazio osoan zehar garatzen da, graduko lehenengo hiru ikasturtean ikusten diren hainbat irakasgai barne hartzen dituelarik.


Modulu honetan ikasitako konpetentzien eta tresnen oinarria pertsonen rolean dago; hauek ezagutza intentsiboko enpresen kudeaketaren arrakastaren eragileak izan behar baitira.



## 2 MODULUA: EKIN ETA BEZERO-IKUSPEGIA: IKASKETAREN GARAPENA ENPRESAN

Ekitearen prozesuarekin eta ikuspegi bat izatearekin erlazionatuta dauden ezagutzak eta kompetentziak garatzen laguntzen du modulu honek. Esan dezakegu, bezeroaren asebetetzeari debozioa izan behar diogula. Modulu honetan, esperientziaren ekonomia (experience economy) baten propioak diren oinarritzko printzipioen asimilazioa eta kudeaketa azaltzen dira. Printzipioak hauek izango lirateke: esperimentazioa bezeroarekin, emaitzetara bideratutako ikuspegia, markaren kudeaketa, edo bezeroarekin integrazioa eta elkarren arteko sorrera.


Modulu honetan ikasitako kompetentzien eta tresnen oinarria talde ekintzaileak eta bezeroak dira; hauen esku aurkitzen dira, ezagutza intentsiboko enpresen aukera berriak, hazkundea eta iraupena. Titulazio osoan zehar garatzen da, baina irakasgaiak graduko lehenengo hiru ikasturtean ikusten dira.



### 3 MODULUA: BERRIKUNTZA SAREAN, BALIOA SORTZEKO ERAGILE BEZALA: IKASKETAREN GARAPENA KOMUNITATEAN

Modulu honen bidez, berrikuntzaren prozesuarekin erlazionatutako ezagutzen eta konpetentzien garapena lor daiteke eta garrantzia ematen zaio ere, sareen kudeaketari, balioaren sorreraren eragile bezala, ezagutzaren enpresa intentsiboetan. Nodulu honetan ikusten da ere, berrikuntza sarean prozesuan, oinarrizkoak diren printzipio eta tresnen asimilazioa eta kudeaketa, besteak beste hauek izango lirateke: pentsamendu estrategikoak, akordio estrategikoen kudeaketa edo berrikuntza bezeroarekin eta bezeroarekiko.

Modulu honetan ikasitako konpetentziak eta tresnak oinarriztat daukate komunitatearen rola, esparru honetan ezagutzaren enpresa intentsiboak integratzen baitira.



## LEARNING JOURNEYS

Modulu honek bermatzen du, berrikuntza prozesuarekin zerikusia duten ikaskuntza eta kompetentzien garapena, baita ere, ezagutza intentsiboko enpresetan, sareen kudeaketaren garrantzia, balioaren sorkuntzaren eragile bezala. Bertan batzen dira, printzipio eta oinarritzko tresnen barneratzea eta kudeaketa sare berrikuntzaren prozesuan, besteak beste, gogoeta estrategikoak, akordio estrategikoen kudeaketa edota berrikuntza bezeroarekin eta bezeroarentzat.

Modulu honetan ikasitako kompetentzien eta tresnen oinarria komunitatearen rola da, non bateratu egiten diren ezagutza intentsiboko enpresak.

Titulazio osoan zehar garatzen da, baina irakasgaiak graduako lehenengo hiru ikasturtean ikusten dira. Modulu hau osatzen duten irakasgaiak formakuntza basikoaren eta derrigorrezko formakuntzaren parte dira.



**1º AÑO**

**EUROPA** 4 ASTE

- > ingurune erreferentea ekintzailertzan, maila handiko berrikuntzarekin mundu mailan
- > proiektu globalen azelerazioa

Programa

**2º AÑO**

**EE.UU** 4 ASTE

- > lehenengo nazioarteko esperientzia taldean
- > lehenengo proiektu globalak


Programa

**3º AÑO**

**BRICM** 14 ASTE

- > esperientzia, suspertzen ari diren herrialdetan.
- > garapen pertsonala beste kultura batzuetan.

Programa



## OINARRIZKO IKASGAIAK

Modulu honetan oinarrizko ezagutzak eta konpetentziak ikasten dira, enpresaren sorreran eta kudeaketan. Hemen dauden irakasgaiak graduaren oinarrizko prestakuntzaren zati bat osatzen dute. Materiak adituek ematen dituzte, eta honetaz gain, zerga eta lege arloetako aholkularitza egoten da. Graduko lehen eta bigarren urteetan ematen dira, Mondragón Team Academy-k garatutako SIMIT deituriko formatuan.

Ikasitako tresna eta konpetentzien oinarria, ezagutza berrien jabetzea, hauek praktikan jartzea eta oinarrizko konpetentziak praktikan jartzean datza, horrela, Trainera modelaren beste moduluen garapena lortzeko.





INFORMATIKA  
**Programa**



ETIKA ENPRESARIALA  
**Programa**




ENPRESAREN EKONOMIA  
**Programa**



ESTADISTIKA  
**Programa**




ENPRESA ZUZENBIDEA  
**Programa**




ELKARRIZKETAZKOTXINERA  
**Programa**




ENPRESAKO INGELESA  
**Programa**



PRODUKTUAREN INGENERITZA /  
SERVICE DESIGN  
**Programa**



FINANTZA MATEMATIKAK  
**Programa**



KONTABILITATEA  
**Programa**

## ESPEZIALIZAZIOA

Modulu honetan oinarrizko ezagutzak eta konpetentziak ikasten dira, enpresaren sorreran eta kudeaketan. Hemen dauden irakasgaiak graduaren oinarrizko prestakuntzaren zati bat osatzen dute. Materiak adituek ematen dituzte, eta honetaz gain, zerga eta lege arloetako aholkularitza egoten da. Graduko lehen eta bigarren urteetan ematen dira, Mondragón Team Academy-k garatutako SIMIT deituriko formatuan.

Ikasitako tresna eta konpetentzien oinarria, ezagutza berrien jabetzea, hauek praktikan jartzea eta oinarrizko konpetentziak praktikan jartzean datza, horrela, Trainera modelaren beste moduluen garapena lortzeko.

### Programa





## START UP PROCESS

Modulu honetan, enpresen sorreraren prozesuarekin, enpresaren plan estrategikoaren garapenarekin (Start up business plan) eta enpresa proiektu berrien kudeaketarekin lotuta dauden konpetentziak eta ezagutzak lortzen dira. Helburua, ikasleek, euren ideien bitartez benetako negozioak sortzeko gai izatea da.

Hau dela eta, landu egiten dira ezagutza espezifikoko teoriko-praktikoak negozio berrien garapenerako, adibidez: bideragarritasuna eta proiektzio ekonomiko finantzarioa, bideragarritasun teknologikoa, edo negozioaren ezarpena eta eskalabilitatea.

### Programa

## GRADU AMAIERAKO PROIEKTUA

Helburu nagusia titulazio osoan zehar landutako kompetentzia teknikoak zein zeharkakoak batzen dituen lan bat aurkeztea da. Honela, erraztu egingo da ikasleen hurbilketa lan mundura.

Gradu amaierako proiektua hainbat modutan egin daiteke:

1. Negozio/ enpresa berri bat martxan jarri (start up)
2. Enpresa proiektu baten garapena existitzen den enpresa batean (Taldeen barne ekintzailletza, negozio berrien sorrera, produktuen berrikuntza.)

Gradu amaierako proiektua laugarren mailan egiten da eta gutxienez, bost hilabete trinko irauten du.

### Gida Akademikoa





## EBALUAKETA SISTEMA

Irakasteko metodo ezberdin batek ebaluatzeko sistema desberdina eskatzen du.. LEINN Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza Graduan, Finlandiako Team Academy-n erabilitako ebaluazio eredutik abiatzen gara: Rocket Model-a, eta honi , gure testuinguruko berezitasun batzuk gehitzen dizkiogu.

Dokumentu honetan, honako hau laburtzen da: erabilitako ebaluazio prozesua, kontuan hartutako elementuak, ebaluazioaren mekanika eta LEINNeKo team cooperative bakoitzak bete behar duen ikasketa irizpideak.

Gure ebaluazio sistema, holistikoa eta integratzailea da, hurrengo arrazoiengatik:

1. Teampreneurs-en ikasketa prozesua bermatu eta bultzatzen duen ebaluazio sistema bat sortu. Sistema hau bat etorri behar da talde dinamikekin.
2. Taldearen ikasketa erraztu, banakako ikasketaren bitartez.
3. Finlandiako Team Academy-aren Rocket Model aren edukietan dauden ikasketa prozesuen konplimendu integrala ziurtatu.
4. 21 konpetentzien lorpena ahalbideratu hurrengo kategorietan: team-preneur, teamlearner eta team-leader teampreneurs-en aldetik.

# ARAUDI AKADEMIKOA

Atal honetan indarreko araudiak eranstean dira  
2024-2025 ikasturte akademikoan:

## **Araudi Akademikoa**





## EGUTEGI AKADEMIKOA

Egutegi akademiko orokorra 2024-2025an:

**Ikasturtea:**

2024ko abuztuak 12- 2025eko uztailak 11

**Ikasturte hasiera:**

Abuztuak 12 - Irailak 23

**Gabonak:**

Abenduak 23- Urtarrilak 6

**Lehen seihilekoaren ebaluaketa:**

Abenduaren 11tik Urtarrilak 31ra

**Aste Santua:**

Apirilaren 14tik apirilaren 27ra (3.mailako LJetan data hauek aldatu daitezke herrialdearen egutegiaren arabera)

**Bigarren seihilekoaren ebaluaketa:**

Ekainaren 2tik 27ra

**Ez ohizko ebaluaketa probak:**

Uztailak 1etik 11era

Leinn International 3º: ekainaren 9tik 20ra

Leinn Puebla: Ekainaren 16tik 30era

Estatuko, probintzietako eta herrietako jai egunak laborategi bakoitzean erabakitzen dira LJak eta taldeen bidaiak kontuan hartuz.

